

Fukushima saiakera eremu bilakatu da

FUKUSHIMAKO ZENTRAL NUKLEARRA kudeatzen duen TEPCO konpainia-
ren arabera, itsasora isuritako ur erradioaktiboak ez du inguruko itsasertza
kutsatu; horren froga modura aldika-aldika itsasoan, hiru eta hamabost
kilometrora, egindako kontrolak aipatzen ditu. TEPCOk hori esan zuen
egun berean beste ikerketa bat argitaratu zen; haren arabera itsasertzetik
kilometro batera inoizko zesio kontzentrazioarik handiena neurtu da.

Aipatutakoa Fukushiman gertatzen ari denaren adibide bat baino ez da.
Esaten denak ez du funts nahikorik, edota epe laburrean aldatzen da.



JOHN POWERS

Langileak Fukushiman.

Beste adibide bat: TEPCOren arabera orain 350.000 ur tona dago, nola-
bait pilatuta, zentralaren azpian, eta 2016an 800.000 izango dira. Ur hori
itsasora ez isurtzeko, iaz murrut erraldoi bat eraikitzen hasi ziren itsasertze-
ko lur azpian, eta datorren urtean zehar amaiturik izatea espero dute. Gai-
nera, metatutako urak dituen substantzia erradiaktibo gehienak garbitzeko
sistema prest egongo omen da jada.

Baina TEPCOk emandako informazio horren atzean beste irakurketa
hau ere egin daiteke: 800.000 tona eurek hozte-sistemetan erabilitako ur
kantitatea da, baina zenbat da euriteen eraginez gehitutakoa? Itsasora ur
erradioaktiboa ez isurtzeko murrutak, hasiera batean, eragotzi dezake ura
itsasoratzea, baina badago hori ziurtatzerik, epe luzeagoan, horrelako
espazio handietan? Zein kosturekin? Uraren garbiketa-sistemak 63 ele-
mentuetatik 62 garbitzeko helburua du, baina oraingoz hiru unitateetatik
batek baino ez du funtzionatzen, matxurak bata bestearen atzetik gerta-
tzen dira eta.

Gai honek, bere txarrean bederen, badu alderdi on bat:
Fukushima saiakera laborategia den neurrian urte batzuk barru
gizakiak hobeto ezagutuko du erradiaktibitatea kontrolatzeko
teknologia. Bitartean... ■



Puskatu gabe tolestu daitezkeen zeramika lanak

Denok dakigu zeramika lanak ez direla batere malguak, eta presiopean puskatu egiten direla. Nazioarteko ikerlari talde batek, lehen aldiz, zeramika ale malguak ekoitzi ditu. Hori gutxi balitz, hasierako itxura “gogoratzen” dute, eta gai dira hura berreskuratzeko.

ttiki.com/56263

(Gaztelaniaz)

Intsektuen sexu-jarduna eguraldia aurreikusteko tresna izan daiteke

Ohituraz, animalien portaera zer eguraldi egingo duen igartzeko erabili izan da, baina oinarri zientifikorik gabe. Berriki, ordea, Sao Pauloko eta Western Ontarioko unibertsitateetako entomologoek, elkarrekin egindako ikerketa batean, ikusi dute egingo duen eguraldiak eragina duela hiru espezieetako intsektuen sexu-jardueran.

ttiki.com/56264

(Euskaraz)

Minbiziaren kostua Europan

The Lancet Oncology aldizkarian argitara eman den artikulua batean, zientzialari talde britainiar batek dio 2009an europar bakoitzarentzat 102 euroko kostua izan zuela minbiziak. Guztira, 126.000 milioi euro. Hala ere bihotzeko gaitzen kostuaren azpitik omen dago.

ttiki.com/56265

(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16